

# Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:  
AIALA ELORZA

**Urduña (Bizkaia)**

## Bizkaiko hiri bakarra

Gorobel eta Gibijo mendilerroen babesean dago Urduña, Bizkaiko uhartea Araban. Haren eta Gaztelaren arteko mugan sortua XIII. mendean, Bizkaiko Erdi Aroko alde historiko handiena du, eta 1997an multzo historiko monumental izendatu zuten. Hiribildu izan zen lehenik, hiri izendapena lortu zuen gero. Bizkaiko bakarra da, izan ere.

Urduñako hiriaren historian hiru momentu berezi behar ditugu. Lehena jatorrizko hiriar dagokio, XIII. mendean Lope Diaz de Haro Bizkaiko Jaunak sortutakoari. 1229an, hiru kalek osatzen zuten Urduña: Burdin, Artekale eta Harategi. Ekialdetik hegoaldera zeharkatzen zuten hiria eta kantoiez lotuta

zeuden. Haien inguruan harresi handia eraiki zuten. Egun, jatorrizko egituraren bi heren baino ez dira geratzen, eta zati handi bat etxebizitzentz atzeko aldeko hormetan ezkutatuta dago. Jatorrizko esparru honetan Andre Mari babes-eliza aurkituko dugu. Harresiari itsatsita eraiki zen estilo gotikoko tenplua

da; beraren inguruan bisitatu daitekeen errondako pasealekua dago.

1256. urtean, Antso X.a Jakitunak, Urduñaren kokapen estrategikoaz eta merkataritzarako zeukan garrantziaz ohartuta, hirira joan eta Bizkaiko Jauna menpe hartuz, errege-gutuna sinatu zuen. Gertakari horrekin batera, hiriaren lehen zabalkundea

**Ezkerrean, Erdi Aroko hiriko kale bat. Eskuman, Antiguako Andre Gurearen santutegia.**





Urduñako haranaren ikuspegia, ezkerreko aldean Txarlazo mendia duela. Haren gailurrean eraiki zen 1904an izen bereko monumentua (eskumako argazkian), Antiguako Ama Birjinaren omenez.

hasi zen, lau kale berri sortuz: Kale Zaharra, Frankos, Orruño eta Donibane. Gerora, Urduñak jasotako merkataritzaren monopolioak eta bigarren azoka antolatzeke eskubi-deak erabateko garrantzia eta ongizate ekonomikoa eman zioten hiriarri. Horren seinale dira garai hartan eraiki ziren jauregi eta dorreak.

Oparotasun ekonomikoak zabal-kunde berria egitera behartu zuen. Hala, XIV. mendean hiru kale berri eraiki ziren hiriaren jatorrizko egitura aldatuz eta iparraldetik hegoaldera zabaltzen den hiri-gunea osatuz.

Kale multzo horiek gune zabal ezohiko baten inguruan eraiki ziren: Foru Plaza. Erdi Aroko plaza horren ezaugarrietako bat arkupeak dira, merkataritzaren garapenaren ondorioz sortutakoak. Neurri handiko zolatu horren inguruan hiriko eraikin garrantzitsuenak aurkituko ditugu; Udaletxea, Atari Iluna, Erdi Aroko dorrea, Mimenza jauregia, Diaz Pimienta jauregia, Aduana etxea eta Familia Sakratuaren eliza.

### Ruzabalgo Junta

Urduñako haranak beste zortzi herrixka biltzen ditu hiriaz gain. Alorria, Artomaña, Delika eta Tertanga arabarrak dira eta Amurrioko udalean daude. Lendoñogoiti, Lendoñobeiti, Belandia eta Mendeika auzoek, berriz, Bizkaiko Ruzabalgo Batza osatzen dute. Batzorde horri buruzko agiriarik zaharrenak XV. mendekoak dira eta Erdi Aroan zehar, Urduñako hiriarekin gertatu zen bezala, igarobide garrantzitsua izan ziren Gaztelatik Kantauri itsasorako bidean.

### Gorobel mendilerroa

Gorobel mendizerra Urduñako haranaren zaindari eta harresi naturala izan da betidanik. Ingurune paregabe horretan Nerbioi ibaiaren iturburua dugu eta mendilerroaren magalean "La Choza" trikuharria, Eneolito-Brontze garaian eraikia. Gorobel mendilerroan gora, Arabak, Bizkaiak eta Gaztelak bat egiten duten lekuan, Txarlazo mendiko monumentua dago, bailarako gerta-

kari guztien lekuko. Bera izan zen Euskal Herrian hormigoiz egindako lehenengo eraikina.

### Antiguako Ama eta "otxomaioak"

Antiguako Andre Gurearen santutegia idatzietan aipatzen den Bizkaiko lehen tenplua da, baina XIII. mendeko ermitaren aztarna gutxi batzuk baino ez dira gelditzen. Egun bisitatu daitekeen eliza 1754. urtean eraiki zuten, fededun kopuruaren gorakadaren ondorioz.

Urduñatarrek, XVII. mendean, hiriko eta bailarako zaindaritzat hartu zuten Antiguako Ama Birjina eta haren omenez "otxomaio" jaiak ospatzen dituzte. Jaien izenak argi adierazten duen bezala, urtero, maiatzaren zortzian, eskualdeko biztanleak santutegira hurbiltzen dira zaindariari eskaintako botoa berritzeko. Gero, gauez, Euskal Herriko beste txoko batzuetatik etorritako ehunka lagunek giro ederra sortzen dute hiriko kaleetan. Iragana baino gehiago badu Urduñak. ■

20, 30, 35, 40... eta 50 urtera arteko hipotekak. Tasazio-balioaren %100eraino eta abalik gabe.

**zeure erara**  
**bbk**  
**hipotekak**

etxetik botako zaituzte

